bizkaia naturala

BIZKAIKO PARKE NATURALEN ALDIZKARIA

REVISTA DE LOS PARQUES NATURALES DE BIZKAIA

39 zk. 2023ko uda
n.º 39 verano 2023

Lege Gordailua
Depósito legal: BI-1483-2013

Ale kopurua
N.º ejemplares: 3.500

Itsas barraskiloak otsoa uxatzeko
Caracolas de mar para ahuyentar al lobo

Areatzako audiogida
Audioguía de Areatza

Mañariako "marmola"
"Mármol" de Mañaria

IRAKASLEEKIN BERBETAN
CONVERSANDO CON EL PROFESORADO

Argazkia / Foto: Burruntzia. Libélula tigre. *Cordulegaster boltonii*.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Irakasleekin berbetan

Desde nuestros orígenes, el contacto con la naturaleza ha sido vital para el ser humano, sin embargo, ya no se valora como antaño. En los Parketxes de Bizkaia queremos que el alumnado vuelva a tener ese vínculo con la naturaleza y, por ello, apostamos por las actividades al aire libre, donde puedan usar todos los sentidos para aprender al máximo y se lleven un buen recuerdo del entorno que nos rodea.

Los Parketxes de Bizkaia llevamos más de 30 años con un amplio programa de educación ambiental dirigido a todas las edades, y hemos querido conocer el punto de vista de parte del profesorado que habitualmente participa en ellos.

Bizkaiko Parketxeek 30 urte baino gehiago daramatzate ingurumen hezkuntza programa zabala eskaintzen eta gerturatu diren ikastetxeetako irakasle batzuei galdera batzuk luzatu zaizkie beraien iritzia ezagutzeko:

1. Zergatik parte hartzen duzue Hezkuntza Programan?
2. Zelan baloratzen duzu Parke Naturalean izandako esperientzia?
3. Ikasleek nola baloratzen dute?
4. Horrelako irteerek zein onura izan dezakete ikasleengan?

GORBEIA

Alex Oiarzabal Jerez
LH
Berakruz ikastola (Markina)

1. Gelan edukiak lantzeko aukera dugu eta eduki haien aplikazio praktiko bat ematea oso garrantzitsutzat jotzen dut. Irteera honen bitartez, paperean ikusi eta ikasi duguna, bertan zuzenean landu ahal izan dugu eta esperientzietan oinarrituta dagoenak ikaskuntza sakonagoa du.
2. Esperientzia oso positiboa izan da, ikastolatik irteten garelako eta gainera babestutako naturgune bat ezagutzen dugulako. Naturarekin zuzenean gozatzeko aukera izan dugu, bertako espezieak ezagutuz. Hezitzaileen azalpenak ere, oso argiak eta zuzenak izan dira. Eskertzekoa da zuen lanean jartzen duzuen gogoa eta inplikazioa.
3. Bueltatzeko irrikitan daude, asko gustatu zaie bisita. Irakasleok ikasleei ebaluazio fitxa bat pasatu diegu, eta 9tik gorako notak jarri dituzte!
4. Lehenengo galderan aipatu dudan moduan, naturarekin kontaktu zuzenak eta esperientzian oinarritutako ekintzak burutzeak, ikasleengan onurak dakartza, bai maila pertsonalean zein akademikoan.

URKIOLA

Rakel Arce San Miguel
LH
Itxaropena ikastola (Trapagaran)

1. Gure ustez oso programa interesgarria da, gainera Agenda 2030ean sartuta gaude, ondorioz lotura handia dauka lantzen ari garen gaiekin eta edukiekin. Oso programa interesgarria iruditzen zaigu ikasleei begira, ikasten ari garenari begira hain zuzen ere.
2. Egundoko esperientzia da. Bai aipatu behar dela eragin handia duela egiten duen eguraldiak, baina guk hainbat urte daramagu etortzen eta eguraldi ona zein txarrarekin egin izan dugu eta umeek asko gozatzen dute, pila bat ikasi dute. Nire ustez, zoritxarrez, ikasle batzuek ez daukate parke natural batera etortzeko ohiturarik, denbora gehiago pasatzen dute futbol zelaian, merkatal zentroetan eta abar, eta penagarria iruditzen zaigu. Beraz horrelako ekintzak oso aberatsak izaten dira umeei begira, hemengo natura ezagutzeko, zuhaitzak, animaliak, landareak… eta naturarekiko errespetua ere pizteko.
3. Ba ikusi dituzu... poz pozik daude! Esperientzia itzela izan da haiei begira. Jolasaren bidez asko ikasten dute, Parketxean dagoen erakusketaren bidez ere eta zuen azalpenak izugarriak dira, oso azalpen onak eta aberatsak. Umeek pila bat gozatu dute.
4. Nire ustez gero eta gehiago egin beharko genituzke. Naturarekiko errespetua ikasten dutelako baita natura gehiago baloratzen ere. Orain zoritxarrez badakigu guztiok aldaketa klimatikoa gertatzen ari dela eta ikusten dute nolako eragina duen honek guztiak naturan. Hau guztia landu eta ikasten dute ekintza hauen bitartez.

ARMAÑÓN

Zuriñe Etxebarria Lamborena
HH
Kontxa eskola (Karrantza)

1. Herrian egiten dituzten ekintzak aprobetxatu egin behar ditugulako. Ez litzateke oso logikoa izango beste lekuetara joan gurea ezagutu gabe, baina gainera haur hezkuntzako umeentzat haien inguruan gertatzen diren gauzek eragin handiagoa dute, hurbiletik urrunera ikasten dutelako. Bestalde, urtero jarduera desberdinak prestatzen dituzte eta beti iruditu zaizkigu oso aproposak gure umeentzat, esperientzia politak bereganatu dituzte eta oso ondo pasatu dute.
2. Oso esperientzia polita. Aurten adibidez, alde batetik zuhaitzak landatzen egon ginen baina ez hori bakarrik, haien izenak jarri zituzten zuhaitzetan eta gainera lekua markatuta geratu da jakiteko haiek eta haien familiak non dauden 4 eta 5 urterekin landatu dituzten zuhaitzak. Nahi izanez gero, ez da izango hor geratzen den gauza bat, baizik eta jarraipen bat eman ahal diote esperientziari. Bestalde, Parketxeko neskak beti laguntzeko prest daudenez, Kobazuloan Marisorgin agertu zen umeekin hitz egitera, eta hori ez dute inoiz ahaztuko, liluratuta geratu ziren.
3. Nahiz eta urtero joan, pozaren pozez hartzen dute joateko berria. Gustatzen zaie joatea eta gogoratzen dituzte beste urtetako gertaerak, beraz, horrek esan nahi du zentzua izan dutela haientzat ikasitako gauzek.
4. Inoiz ez dakigu noraino ailegatzen den gure eragina zeren eta pertsona bakoitza bakarra da, puntu desberdin batean dago, eta bere bizipenak eta interesak erabakigarriak dira jarduera beretik ikaskuntza desberdinak ateratzeko orduan. Hala eta guztiz ere, esperientzia desberdina eskaintzen die, beren errutinatik eta konfort-eremutik kanpo, baina lagunekin, hurbilekoak eta interesgarriak diren gauzak ezagutuz ingurune natural batean.

Caracolas de mar para ahuyentar al lobo

Armañón

Betidanik, Karrantza Haraneko mendietan otsoa ugaria izan da, eta artzainek beraien artaldeak babesteko beharrizana izan dute. Tradizionalki otsoa uxatzeko era askotako metodoak erabili izan dituzte, oihuak eta txaloak, suak piztea, festaren egunean gordetzen ziren suziriak eta, batez ere, adarrak eta itsas barraskiloak jotzea.

Hace décadas el pastoreo de ovejas aún estaba generalizado en el *Valle de Carranza,* sobre todo entre quienes vivían en "barrios altos", es decir, los situados a mayor altitud, ubicados en las faldas de los montes y por lo tanto con mayor disponibilidad de pastos comunales libres.

Los años en que "andaba el lobo", es decir, cuando se acercaba a los montes del valle, se seguían diversas estrategias para minimizar los daños que pudiera ocasionar.

En aquellos tiempos, algunos pastores se especializaron en capturarlos con trampas de grandes dimensiones, llamadas *cepos,* cuyo uso requería un profundo conocimiento del comportamiento de estos animales, además de la colaboración de los vecinos que debían retirar el ganado del punto donde se "armaba el cepo" para evitar que cayese en el mismo. Una vez atrapado, sus captores lo llevaban de pueblo en pueblo y de casa en casa, recibiendo dinero de los vecinos que así les compensaban por su dedicación.

Se practicaban técnicas menos selectivas como los cebos envenenados, las *tostadas,* que se ponían al atardecer en las pasadas del lobo, esto es, en los caminos por los que se sabía que transitaba. Al otro día debían *levantarlas* o recogerlas bien temprano para evitar que se envenenasen otros animales. También se recurrió a la caza con escopeta, pero resultaba más compleja ya que era necesario organizar batidas. En ninguno de los montes que circundan Carranza hay constancia de la existencia de loberas.

Tocando el caracol. *Lorenzo Aja Santisteban.*

Frente a estas prácticas se llevaban a cabo otras que eran mayoritarias y tenían un carácter más defensivo, consistentes en recoger los rebaños por la noche y dormir en el monte para vigilarlos. Los movían ladera abajo hasta cuevas que hacían la vez de cuadras o corrales bien cerrados; los dueños dormían junto a ellos aprovechando abrigos

rocosos para resguardarse. Si la presencia de lobos y también zorros coincidía con el periodo estival de mayor calor, los pastores del norte del valle evitaban mover los rebaños de las cumbres. Para pasar la noche levantaban unas *cabañas* improvisadas en los *cordones*, en las cimas. Utilizaban para ello dos palos clavados verticalmente en el suelo con sendas horcas en la parte superior que permitían apoyar otro horizontal. Colocaban después más palos inclinados a un lado y otro y apoyados en el mismo, formando una especie de tejado. El mismo se cubría con *cesperones* o tepes que recortaban a azada y disponían sobre los palos a modo de tejas. Eran construcciones de dimensiones reducidas que permitían dormir en su interior a dos o tres hombres; nunca lo hacía uno solo. El rebaño permanecía cerca de esta precaria *cabaña* y ante el acoso de algún depredador podían salir rápidamente para ahuyentarlo y proteger a las ovejas.

Una estrategia añadida consistía en hacer ruido para espantar a los lobos que merodeasen cerca. Para ello se recurría a cuernos de bueyes y sobre todo a los llamados *caracoles*. Estos eran en realidad caracolas de mar de buenas dimensiones a las que con mucho cuidado se les desgastaba la zona apical a través de la cual se soplaba hasta obtener un sonido grave. Para hacer sonar adecuadamente el *caracol* hacía falta destreza y buenos pulmones. Estas caracolas las solían obtener encargándoselas a las *pejinas*, las mujeres que venían desde los cercanos puertos pesqueros de Cantabria a vender por las casas su pescado.

Recuerda un vecino de Paules, barrio situado a los pies de Armañón, que había años en que los dueños de los rebaños tenían que dormir en el monte en estas improvisadas *cabañas* a lo largo de todo el *cordón* que venía desde encima de Santecilla hasta Armañón y de ahí en adelante, es decir, toda la cumbre de lo que ahora es el Parque Natural.

Durante el crepúsculo, antes de que anocheciese, comenzaban a hacer sonar el *caracol* en la zona más alejada y continuaban los demás, uno tras otro, de modo que el sonido profundo y prolongado del *caracol* recorriese todo el monte hasta llegar hasta donde él tenía la *cabaña*, cerca de Armañón, y continuaba más allá. En otras ocasiones los lobos atacaban un rebaño de madrugada y su dueño hacía sonar el *caracol* para ahuyentarlos. Los demás pastores se despertaban y comenzaban a tocar los suyos. Y en plena noche varias decenas de caracoles sonaban al unísono por todos los montes.

Los lobos dejaron de aparecer por el Valle de Carranza hacia 1965. Cuando hicieron su reaparición en 1986, las antiguas prácticas pastoriles ya se habían modificado drásticamente y los productos derivados de las ovejas habían sufrido una seria depreciación; y así, poco a poco, los montes fueron cambiando, con una disminución de los rebaños de ovejas que han sido sustituidos por ganado vacuno y caballos.

Luis Manuel Peña Cerro

Actualmente el lobo se presenta ocasionalmente en la sierra de Ordunte. Por ello, la Dirección de Agricultura (Servicio de Ganadería) de la Diputación Foral de Bizkaia concede ayudas para medidas de prevención de ataques de lobos a las personas titulares de explotaciones ganaderas. Asimismo se dan indemnizaciones para paliar los daños ocasionados en los animales domésticos.

AREATZAKO AUDIOGIDA

Hona hemen Areatzako hiribilduaren alde zahar historikoaren nondik norakoak azalduko dizkizun audiogida.

Ibilbide honetan aurkituko dituzun eraikinek monumentu izendapen ofiziala daukate, eta ibilbidea osatu ahala ikusiko dituzun jauregi xarmagarri eta etxe barrokoek aspaldiko garaietara eramango zaituzte.

Te presentamos esta audioguía donde podrás descubrir el casco histórico de la villa de Areatza.

En este recorrido, declarado conjunto monumental, sus notables palacios y casonas barrocas nos trasladarán a épocas pasadas.

Areatzako Udala · Ayuntamiento de Areatza · Gorbeia

Ibilbidea egiteko audiogida erabili nahi izanez gero, zatoz **Parketxe**ra eta eskatu.

Si prefieres una audioguía para hacer el recorrido, acércate al **Parketxe** y solicítala

Ordutegia — EUS

Horario — ES

1 Plaza

EUS

ES

2 Bekokale-Zubizarra

EUS

ES

3 Mari Cruz de Gurutzeta

EUS

ES

4 Zubizarra plaza

EUS

ES

5 Eliza ataria *Pórtico de la iglesia*

EUS

ES

6 Eliza aurrea: burdinola-errota

Delante de la iglesia: ferrería-molino

EUS

ES

7 Eliza aurrea: XIX. mendea

Delante de la iglesia: siglo XIX

EUS

ES

8 Askako iturria *Fuente del Aska*

EUS



ES

9 Mudejar Etxea *Casa mudéjar*

EUS



ES

10 *Palacio* Gortazar jauregia

EUS

ES

Mañariako "marmola"

Kareharri landua, *marmola* deitzen zaiona.

En el siglo XVIII se comenzaron a explotar varias canteras en Mañaria de las que se obtenía una caliza de gran calidad que al pulirla se asemejaba al mármol. La Corona española, avisada de su calidad y belleza, realizó diversos encargos de piezas y columnas destinadas a edificios como el palacio de la Reina en Valsaín y la Casa Real de San Ildefonso. Una de dichas columnas se rompió mientras la subían por el puerto de Urkiola y acabó junto al caserío Galtzada de Mañaria transformada en abrevadero.

Belaunaldiz belaunaldi, herriko bizipen eta istorio asko galtzen dira, urte gutxiren buruan, gure herriko txoko ezberdinetan aurki ditzakegun aztarnen jatorri eta istorioak galduz. Mañarian, Urkiolako mendatea igotzen hasi bezain laster, ezkerraldean Galtzada baserri handia dago, garai batean ostatua izan zena. Bere alboan bada harrizko egitura bat, gaur egun urez beteta dagoena eta aska eginkizuna duena. Aska horrek, istorio berezia du atzean, Iturburu baserriko Maria Victoria Orobiourrutiak sarritan kontatzen zuena. Egitura hori izatez, Madrilgo errege-etxeko kaperarako sortu zen zutabeetako bat baita. Zutabe hauek, arrabolen gainean biraka eramanez garraiatzen zituzten eta mendatea igotzen hasi bezain laster, hauetako bat hautsi egin zitzaien bertan geldituz. Aprobetxatzeko, zuloa egin zioten eta aska funtzioa hartu zuen.

Marmola erregeentzat

XVIII. mendean, Mañarian, leuntzerakoan marmol itxura duen kareharri bikaineko hainbat harrobi ustiatzen hasi zen. Hauek, ziztu bizian ospe handia hartu zuten eta *marmola* toki askotarako eskatzen hasi zen. *Jaspe* zeritzoten *marmol* hau, jatorri ezberdineko beta ugariz osatuta zegoen, batzuk zuriak, beste batzuk beltzak...

Hasiera batean, jabetza, kareharrizko harrobietan bezala, komunala zen, Mañariako edozein biztanlek etekina atera zezakeelarik. Baina 1751. urtean, Espainiako Koroa, *marmol* honen kategoria ez ohikoaz ohartu zen eta Elizateari 22 zutabe lantzea agindu zion Madrilgo errege-etxerako. Enkargu honek, garrantzitsua itxura batean, arazo bat suposatu zuen Mañariarentzako, Koroak, bere erabilerarako harrobien zati bat bahitu eta zuzenean onurarik atera gabe mantentzera derrigortu baitzuen.

Galtzada baserriaren ondoan dagoen aska.

Momentu horretatik aurrera, eskaerak igo egin ziren, bereziki Koroak egindakoak. 1753an, Athanasio de Capanaga mañariarrak, hemeretzi *jaspe* harrizko piezen gidaritza burutu zuen Gasteizeraino (hamazazpi Mañariatik, bat Abadiñoko Gatzaieta auzotik eta beste bat Otxandiotik), gero bertatik garraiatuak izan zitezen Balsainen kokatutako Erregina alargunaren jauregira. 1766ko auzi batean, aldez aurretik San Ildefonsoko errege-etxera hamabost zutabe bidali zirela adierazten da eta urte horretan bertan, *jaspe* harri multzo bat Ozeano Atlan-

tikoaren beste aldean dagoen Buenos Airesera bidali zen.

Guztiak ez ziren errege enkarguak, Elizateak auzo lurretan harrobi bat kontserbatzen baitzuen eta bertatik hainbat toki ezberdinetara zabaldu zen Mañariako *jaspe* harria. Sortzen zituen irabaziak zirela eta, jende asko honetatik aprobetxatzen saiatu zen eta arrazoi honegatik, 1775ean, udal kabildua kexatu egin zen, pertsona askok lizentziarik eskatu gabe eta parte eman gabe, kantitate handian *jaspe* harri zatiak ateratzen baitzituen. Honek, Elizateari kalteak sortzen zizkion, harrobien inguruko zuhaitzak moztu eta piezak garraiatzen zituzten gurdiekin, errege eta auzo bideak hondatzen baitzituzten. Guzti honegatik, ustiapenerako honako baldintza hauek ezarri ziren:

1. Harrobiko harria Mañariatik kanpo erabili nahi duen edonork, lizentzia eskatu beharko du eta gurdi bakoitzeko hiru erreal ordaindu beharko ditu, bideen konponketetarako bideratuak izango direnak.
2. Mañariakoa baldin bada aurrerago aipatutako harria atera nahi duena, erreal bat eta erdi ordaindu beharko du gurdi bakoitzeko.
3. Aipatutako baldintzak ez dira Durangoko bizilagunentzat izango, baldin eta Mañariako bizilagunek hiribilduko losa harridun harrobietara sarbidea libre badute.

Beste harrobi batzuen konpetentziak, tokiko *jaspe* harriaren gainbeheran eragin garrantzitsua izan zuelakoan, hortik aurrera, Mañariako *marmola*ri buruzko aipamenak desagertu egiten dira. Hala ere, badakigu 1882an oraindik ere *marmola* ateratzen zela Mañariako harrobi batzuetatik, non zizel eta mutxardarekin lantzen zen, beranduago leuntzeko.

Mañariako harrobi zahar bat.

Duela urte batzuetatik hona, Victor Arrizabalaga artistak, Angurretako marmol harrobi zaharra, arte espazio bihurtu du. Bertan, arte lan ezberdinak erakusten dira aire zabalean eta Mañariako harrobien historia ezagutzera ematen da. Urrira arte, bisita gidatuak izango dira bertan. Informazio gehiago: angurreta@gmail.com

Informazio iturria: **www.mañaria.eus**

Mendi ibilbidea Mañarian eta Angurreta Harrobia Arte Espaziora bisita gidatua.	**IRAILAK 10 SEPTIEMBRE**	Itinerario de montaña en Mañaria y visita guiada a Angurreta Harrobia Arte Espazioa.

LEHIAKETA / CONCURSO

Non dago txoko hau? / ¿Dónde está este lugar?

Argazkian agertzen den toki honen izena gure helbide elektronikora zure izen-abizenekin batera, irailaren 22a baino lehen bidaltzen badiguzu, sari bat jasoko duzu.

Horrez gain, txoko horretan ateratako argazki bat bidaltzen baduzu, 50 eurotan baloratutako bertako produktuen zozketa batean sartuko zara. Argazkian pertsonaren bat agertu behar da.

Si nos envías el nombre de este lugar a nuestro correo electrónico antes del 22 de septiembre junto con tu nombre y apellidos, recibirás un regalo.

Además, si nos envías una foto de este rincón, entrarás en el sorteo de una selección de productos de caserío de la zona valorado en 50 euros. En la foto tiene que aparecer alguna persona.

urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus

Ezin zara ikusi gabe geratu...
No te puedes perder...

▶ Armañón

Beroa iristearekin batera, beti gogotsu gaude uretan bainu bat hartzeko. Naturguneek, eguzkiaren izpiak zailtasunez sartzen diren txokoak dituzte, naturaz eta soseguaz gozatzeko moduko errekak. Turtziozen, Peñalba errekaren putzuez goza dezakegu. Karrantzan, berriz, Ordunteko mendietan peña del Águila putzua daukagu.

Con la llegada del calor siempre apetece refrescarse y darse un chapuzón. Los espacios naturales cuentan con esos rincones donde difícilmente penetran los rayos del sol, los gélidos arroyos donde darnos un baño disfrutando de la naturaleza y el sosiego. En Trucíos podemos disfrutar de las pozas del arroyo de Peñalba. En Carranza, por su parte, tenemos en los Montes de Ordunte la poza de la peña del Águila.

▶ Gorbeia

Baias izena hartuko duen errekastoa jaiotzen den tokiari Ubegi deritzogu. Kobazulo honetako barruko barrunbeetatik ateratzen den ur garbiak, inguruari bizia dario. Toki paregabe honetan, gure egunerokotasuneko abiadura ere moteldu egiten da. Garai batean gure arbasoek, trontza eta aizkoren hotsak, uraren zurrumurru eta animalien soinuekin bat egiten zuten. Zatoz inguru hau bisitatzera!

El lugar donde nace el arroyo Baias, se llama Ubegi. El agua limpia que sale del interior de la cavidad, le da vida al entorno. En este sitio maravilloso nuestro modo de vida diaria se aminora. Te invitamos a visitar este entorno donde nuestros ancestros convivían con los sonidos de las tronzas y hachas, el murmullo del agua y los sonidos de los animales. ¡Ven a conocerlo!

▶ Urkiola

Mugarra eta Leungana mendien artean, Mugarrikolanda deituriko mendi-lepotik, Anboto mendizerraren ikuspegi aparta dugu. Hemendik, Mugarrako pareta malkartsuak gertu ikusten dira eta pago motzek, antzinako bidean zehar, Leunganara igotzera gonbidatzen gaituzte. Hauetako tontorren batera igo orduko, Oiniturriko iturrian, ur trago freskoa edateko aukera dago. 1926ko uztailean, Mugarrako buzoia jarri baino urte bete lehenago, Durangoko Cultural Elkartearen baitan zegoen Rusia Gastañerreko taldeak inauguratu zuena.

Entre los montes Mugarra y Leungana, en el collado de Mugarrikolanda, tenemos una vista extraordinaria de la sierra de Anboto. Desde aquí, se ven próximas las escarpadas paredes del Mugarra y las hayas trasmochas nos invitan a ascender al Leungana siguiendo el antiguo camino. Antes de subir a alguna de estas cimas, tenemos la posibilidad de beber un trago de agua fresca en la fuente de Oiniturri. Fue inaugurada en julio de 1926, un año antes de la instalación del buzón de Mugarra, por el grupo Rusia Gastañerre perteneciente a la Sociedad Cultural de Durango.

Parte hartzeko, izena eman behar da ekintza antolatu duen Parketxean / Para participar hay que apuntarse en el Parketxe organizador de la actividad

Ekintzak Armañonen / Actividades en Armañón

Uda osoan zehar / Durante todo el verano

Mendi ibilbide autogidatua: Turtziozen kokatutako Canal de Peñalba ezagutzeko aukera paregabea. Zailtasuna: baxua. Eskatu informazio gehiago Parketxean.

Itinerario de montaña autoguiado: conoce el Canal de Peñalba situado en Trucíos. Dificultad: baja. Pide más información en el Parketxe.

Euskal Mendizaletasunaren inguruko "Mendian gora" erakusketa egongo da Karrantzako Parketxean ikusgai, Emmoa Fundazioaren eskutik.

Exposición "Mendian gora" en el Parketxe de Carranza sobre la historia del Montañismo Vasco, de la mano de la Fundación Emmoa.

EKAINA / JUNIO

Larunbata 24, sábado

Mendi ibilbidea: 700 metroko tunela zeharkatu eta gero Guriezon kokatutako Juncal urtegiraino joango gara. Zailtasuna: ertaina.

Itinerario de montaña: iremos hasta el embalse del Juncal situado en Guriezo, atravesando el túnel del canal de 700 m de longitud. Dificultad: media.

UZTAILA/ JULIO

Larunbata 15, sábado

Turtziozko ginkana: Agüera ibaiertzetik paseo eder batez gozatzen dugun bitartean, Turtziozko historia eta inguruko zuhaitz bereizgarrienak ezagutuko ditugu gure ginkana entretenigarriaren bidez.

Yincana en Trucíos: mientras disfrutamos de un precioso paseo a orillas del río Agüera, iremos conociendo la historia de Trucíos y los árboles más característicos del entorno a través de nuestra entretenida yincana.

IRAILA / SEPTIEMBRE

Larunbata 9, sábado

Mendi ibilbidea: Ordunte Mendietatik PR BI-122 jarraituz ikazkinen bidezidorraren zati bat zeharkatuko dugu, Bernalesetik Lanzasagudas auzoraino. Zailtasuna: ertaina.

Itinerario de montaña: recorreremos parte de la PR BI-122 por los Montes de Ordunte, siguiendo la senda de los carboneros desde Bernales hasta Lanzasagudas. Dificultad: media.

Ekintzak Gorbeian / Actividades en Gorbeia

Uda osoan zehar / Durante todo el verano

Areatza herria ezagutu nahi duzu? Parketxean dauden audiogidak erabiliz, Erdi Aroko herri honetako eraikinen informazioa lortuko duzu.

¿Te apetece conocer Areatza? Utilizando las audioguías que tenemos en el Parketxe, obtendrás toda la información de los edificios de esta villa medieval.

Uztaila eta abuztu osoan zehar / Durante todo julio y agosto

"Animarbolak, irudimenari irekitako erakusketa" Parketxean: Vicente Guinea argazkilariak, zuhaitzetan aurki ditzakegun forma bitxietan hausnartzera gonbidatzen gaitu.

"Animarbolak, una exposición abierta a la imaginación" en el Parketxea: el fotógrafo Vicente Guinea, nos invita a reflexionar sobre las curiosas formas que podemos ver en los árboles.

UZTAILA / JULIO

Igandea 2, domingo

Areatzako alde zaharretik ibilbide historikoa, Mikel Urrizen eskutik.

Itinerario histórico por el casco antiguo de Areatza, de la mano de Mikel Urriz.

Astelehena 31, lunes

Gorbeia Parke Naturalean ospatzen den Inazio Deuna honetan, mendizale asko hurbiltzen da Gorbeiara. Horregatik Parketxetik gomendio batzuk emango ditugu.

En este día de San Ignacio, es mucha la gente que se acerca al entorno de Gorbeia, y es por ello que desde el Parketxea queremos dar unos cuantos consejos.

IRAILA / SEPTIEMBRE

Larunbata 16, sábado

Mendi ibilbidea: Ubidetik Oketa mendira igoko gara arratsalde iluntzeko basoko soinuez gozatuz. Zailtasuna: ertaina.

Itinerario de montaña: subiremos hasta el monte Oketa desde Ubide, disfrutando de los sonidos del bosque al atardecer. Dificultad: media.

Ekintzak Urkiolan / Actividades en Urkiola

Uda osoan zehar / Durante todo el verano

Non dago txoko hau? Aldizkari honetako 8. orrialdean informazioa aurkituko duzu.

¿Dónde está este lugar? Encontrarás la información en la página 8 de esta revista.

Bio-desatsegina kontzientziazio kanpaina, paper-zapiak lurrean ekiditeko. Biodegradagarria bai, nazkagarria ere bai. Sentsibilizazio kartelak egongo dira Urkiolako mendatearen inguruan.

Campaña de concienciación Bio-desagradable, para evitar los pañuelos de papel en el suelo. Biodegradable sí, desagradable también. Habrá carteles de sensibilización en el entorno del puerto de Urkiola.

EKAINA / JUNIO

Igandea 25, domingo

Hontza Extrem abentura parkean, naturaz gozatuko dugu dibertimendua eta abentura uztartuz.

En el parque de aventura Hontza Extrem, disfrutaremos de la naturaleza combinando la diversión y la aventura.

UZTAILA / JULIO

Larunbata 1, sábado

Goazen basoko fruituak jasotzera! Atxineta etxaldeaz gozatu ahal izango dugu eta bertan gaudela ahabiak jaso ahal izango ditugu gure etxera eramateko, salmenta zuzena bultzatuz.

¡Vamos a recoger frutos del bosque! Disfrutaremos de la finca del caserío Atxineta, donde tendremos ocasión de recoger arándanos para llevarlos a casa, impulsando la venta directa.

ABUZTUA / AGOSTO

Larunbata eta igandea 26-27, sábado y domingo

Laino misteriotsuaren bila. Adin guztietarako pista jolasa Saibi mendian. Opariak banatuko dira.

En busca de la nube misteriosa. Juego de pistas en el monte Saibi para todas las edades. Se repartirán regalos.

IRAILA / SEPTIEMBRE

Igandea 10, domingo

Mendi ibilbidea Mañarian eta Angurreta Harrobia Arte Espaziora bisita gidatua. Zailtasuna: baxua.

Itinerario de montaña en Mañaria y visita guiada a Angurreta Harrobia Arte Espazioa. Dificultad: baja.

Peña del Morora ibilbidea.
Ruta a la Peña del Moro.

Ventosora ibilbidea.
Ruta a Ventoso.

Permakulturarantz.
Hacia la permacultura.

Garrastatxu – Nafarkorta mendi ibilbidea.
Itinerario de montaña Garrastatxu – Nafarkorta.

Otxandioko hezeguneetara bisita.
Visita a los humedales de Otxandio.

Arluziagara mendi ibilbidea.
Itinerario de montaña a Arluziaga.

Bizkaiko Parke Naturalei buruzko informazioa jaso eta antolatutako ekintzen berri izan nahi duzu?

Egin zaitez Parkeetako Laguna edozein Parketxerekin harremanetan jarriz.

¿Quieres recibir información sobre los Parques Naturales de Bizkaia y sobre las actividades que organizamos?

Hazte Amigo o Amiga de los Parques contactando con cualquiera de los Parketxes.